

BERTSOLARI BATEN ERRETRATUA: MANUEL MATXAIN EZPELETA (1916-1999)

*Pedro BERRIOCHOA AZCÁRATE*¹

Valentín de Foronda Institutua UPV/EHU

Laburpena:

Manuel Matxain Ezpeleta (1916-1999) Aieteko (Donostia) bertsolari xume bat izan zen. Herri-kirolei atxikitako gizona ere izan zen, bere dohain fisiko ikaragarriak zirela eta. Bertsolari berantiarra eta bertso-jartzailea, haren bertsogintza tradizioa eta modernitatearen artean mugitzen da, eta gizatasun handiko pentsamendu-lerroak zabaltzen ditu.

Gako-hitzak: Bertsolaria. Gipuzkoa. XX. mendea. Gerra Zibila. Herri-kirolak. Kristautasuna.

Resumen:

Manuel Matxain Ezpeleta (1916-1999) fue un *bertsolari* humilde de Aiete (San Sebastián). Fue también un hombre de cualidades físicas portentosas, muy unido al deporte rural. *Bertsolari* tardío y de pluma, sus versos nos muestran a un hombre que oscila entre lo tradicional y lo moderno, y que despliega unas líneas de pensamiento de una importante estatura moral.

Palabras clave: *Bertsolari*. Gipuzkoa. Siglo XX. Guerra Civil. Deporte rural. Cristianismo.

Abstract:

Manuel Matxain Ezpeleta (1916-1999) was a humble *bertsolari* (a singer of *bertso* which is a musical verse in Basque tradition) who was born in Aiete (San Sebastian). Being a man who possessed tremendous physical ability, he was also attached to rural sports. He was

1. Lan hau Luis Castells katedradunak zuzentzen duen Euskal Unibertsitate Sistemako IT-708-13 Ikerketa-Taldearen barruan egin da, Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeritzaren « El peso de las percepciones del pasado en la política vasca. Violencia política, memoria e identidad territorial» ikerketaren babespean.

a late *bertsolari* whose verses show us a man who oscillates between tradition and modernity. Apart from that, his way of thinking presents a man with high moral standards.

Key words: *Bertsolari*. Gipuzkoa. 20th century. Civil War. Rural sports. Christianity.

Egia esan, ez naiz bertsozale. Agian, nire betiko euskara defizita izango da horren zergatia. Gogoan ditut, Urretxun, San Juan egunean, Santa Barbarako baselizara eta bertako plazatxora nola etortzen ziren bertsolariak, eta nola botatzen zituzten bertsoak mikrofono aurrean. Basarri, Uztapide, Lizaso, Lazkao Txiki, Agirre eta beste asko ikusiak eta entzunak ditut, baina ez nien jartzen arreta handirik: ez nien kantatzen zuten gutzia ulertu ere egiten. Beraz, azken puntua botatzen zutenerako, galduta nengoen, eta denak barrezka ari ziren bitartean, ni, pentsakor, bertsoaren nondik norakoa jakin nahian. Horrelako egoerak ez dira oso gogozkoak, eta berehala ekiten nien bestelako zereginari: baxoerdi bat edan, txorizoari koska egin edo ondoan neukanarekin solasean aritu. Bitartean, atzealdean entzuten nuen bertso-doinuaren musika eta bertsolari zahar haien bokal amaigabeak.

Gero, euskara pixka bat gehiago ikasi nuenean, oso modan jarri ziren bertso-txapelketak. Txapelketa nagusia zenbait lagunentzat erromesaldi-leku bihurtu zen, Loiolara, San Antoniora edo Lourdeseko basilikara joatea bezalakoa. Hara joaten ziren asko ere ni bezala zebiltzan: erdipurdi hizkuntzarekin. Hala ere, egintza errituala zenez, miresmen handiarekin jarraitzen zuten liturgia hura. Gainera, bertsolari berri askoren kantu-gaiak ere erabat aldatzen ari ziren. Nire haurtzaroko haiek bi gai zituzten: erlijioa eta euskalduntasuna, gai seriotzat, eta umorea eta batak besteari ziria sartzea, gai arintzat; batik bat, azken hau. Bertsolari gazteek, hau da, 1980tik aurrerako bertsolari gazte haiek, ordea, politika eta, zoritxarrez, politika baino urrutiago zeuden gaiak zituzten bertso gai.

Han ezker abertzalearen pentsakeratik kanpo zebilenak jai zeukan. ETAREN bidetik ateratzen zenak, edo, behinik behin, nazionalismo hertsiki batetik aldentzen zenak, komeriak. Presoak, ETA, amnistia, ikastolak..., sinbolo nazionalistak bihurtu ziren bertso gintzaren ardatz. Espainia, autonomia, bertako eta kanpoko instituzioak, demokrazia... iraintzeko eta barregarri uzteko gaiak. Era berria haiek nire mundutik eta nire pentsamendutik oso urruti geratu ziren. Izateaz, gustukotzat, gogoan ditut Anjel Mari Peñagarikanok egiten zituen bederatziko mamitsuak eta Sebastian Lizasoren ahotsa eta abiadura.

Eta zer esan jendearen harrerari buruz: zenbat eta handiagoak botatzen zituzten, orduan eta txalo gehiago eta oiuhu ozen eta nabarmenagoak. A zer akelarrea! Lehen erlijioa zena, gero ETAREN ideologia eta bere terrorismoaren “albo-kalteak” markatutako ikurrak bihurtu ziren bertso-gai.

Noski, esaten ari naizena zerbait pertsonala eta subjektiboa da. Badakit bestelako bertsolariak ere bazirela. Kontuan dut bertsolari berriek erabat aldatu eta modernizatu zutela bertsogintza, doinu, bertso eta gai berriekin. Hala ere, harrigarria da egon zen mundu zaharrarekiko haustura. Basarri eta Amuriza izan ziren bi garai horien totemak. Adierazgarria da Xabier Amurizak dioena Basarriri buruz hura hil eta gero: alde batetik, mito bat kontsideratzen zuela, baina, bestalde, behin bakarrik hitz egin zuela harekin, eta ez era sakonean: Irungo elkarte batean beste jende batzuk tartean zeudela².

Askoz ere beranduago, 50 urteren bueltan, nire ikerketekin hasi nintzeanean konturatu nintzen zer garrantzizkoa zen bertsolari klasikoen eta bertsolari xumeagoen inguruan zeuden bertsoak, kontakizunak eta memoriak irakurtzea: Antonio Zavalak sortutako Auspoa saila aurkitu nuen. Hasi nintzen, bada, liburu haiek irakurtzen. Aldi berean, bestalde, “aurkitu” nituen Xabier Letek bertsolari eta bertso klasikoei buruz egindako egokitzapenak eta moldaketak. Neurri batean, adiskidetu egin nintzen ez bertsolariekin, baizik eta klasikoekin eta bertso-liburu zaharrekin.

Neure testuinguru horretan ezagutu dut Manuel Matxainen figura. 2015-2016 urte bitartean, Aieteko baserri eta etxeei buruzko lan bat eginen ari nintzela, jendearekin egindako elkarrizketetan behin eta berriro agertzen zen Manuel Matxainen nortasuna eta balioa. Halaxe hasi nintzen haren liburu *Uste gabea*³ izenekoak irakurtzen, eta baita Koldo Mitxelena Kulturunean dauden haren bi karpeta miatzen ere; hain zuzen, Antonio Zavalak bere funtsean utzitakoak. Harrezkero ezagutu ditut haren familia-koak: alaba Marian, suhi Anjel, biloba Iñigo, lehengusin Rosarito eta abar.

Hori dela eta, testuinguru horretan ulertu behar da lantxo hau. Normalean ez dut euskaraz idazten, esanda dago ez naizela bertsozalea, baina Matxain pertsona oso erakargarria iruditu zait, eta aurren bere mendeurrena da. Hilen artetik pizteko pertsonaia interesgarria dela iruditzen zait.

Donostiak baditu bertsolariak. Zer esan Bilintxi buruz! Denek miretsi izan dute, bai bertako bertsolariak eta baita idazle dotoreagoek ere: Pio Barojak, besteak beste. Donostiak izan zituen beste asko ere XIX-XX. mendeetako buelta hartan: Artola anai-arrebak, Bitoriano Iraola, Jose Ganboa, Antonio Arzak... Askok eta askok, gehienak Bilintxen pentsamoldekoak: liberalak eta errepublikazaleak. Txirrita beste era bateko bertsolaria izan zen:

2. *Egunkaria*, 1999-11-05.

3. MATXAIN, Manuel: *Uste gabea*, Auspoa liburutegia, Sendoa argitaletxea, Oiartzun, 2002.

Donostia gertukoa hura ere, eta, gainera, azken urteak Gazteluene baserrian, Altzan⁴, pasa zituena.

Egia esan ez dut gauza handirik edo berririk esateko edo idazteko. Matxainek ez du obra luzea, liburu hura bakarrik. Bere bizitza ere xumea izan zen, nahiz eta Zavalari pena bat geratu: hura ez zirikatu izana autobiografia bat idatz zezan. Matxaini buruz dakidana, berriz, haren biloba Jon Alberdi Matxainek eta Antonio Zavalak idatzitakotik eta elkarrizketetan esandakotik atera dut. Bertsoak ere, hor daude, ia denak liburuan. Beraz, lan honen helburua Manuel Matxainen figura ezagutaraztea eta zabaltzea da, mendeurrena dela eta. Bestalde, saiatuko naiz adierazten zein izan ziren haren bertso-gintzaren ildo nagusiak eta, horren arabera, niretzat interesgarriak diren zenbait bertso plazaratzen eta azpimarratzen.

Matxainek gauza interesgarri bat egin zuen, besteak beste: Aiete auzo bezala eraiki. Aiete hasiera batean etxea zen: izen horrekin berarekin gaskoi familia batek jasotako etxea (Haget, Fayet, Hayet eta Ayete izenekin ezagutzen dena); haren inguruan ezarri ziren Berwickeko dukea, Wellington jenerala edo Angulemako dukea Donostia setiatu zutenean 1719an, 1813an eta 1823an, hurrenez hurren. Beranduago, hurrengo setioan, hau da, I. Gerra Karlistan (1835-1837) etxea erreta geratu zen. Berreraikia, XIX. mendearen bukaeran Bailengo dukeak eta, gero, Casa Valenciako kondeak jaso zuten orain dagoen jauregi dotorea. Jauregi hori 1940an Udalak erosi zuen eta Franco jeneral eta estatuburuari utzi zion, alegia, udalekutzat diktadura amaitu arte.

XIX. mendearen erdialdean, bestalde, elizatzko bat altxatu zuten jauregiaren ondoan. 1926an, Luis Eleizalde arkitektoaren planoen arabera, jaso zen gaurko eliza. Jauregi eta elizaren artean bizi izan zen Manuel Matxain, Txabola Berri edo Matxainene etxean, Donostiatik Hernanira zihoan galtzada zaharraren ondo hartan. Orduan, oraindik, ez zegoen Aieteko auzorik: Amarakoak ziren ekialdera, Urumeara ematen zuten etxeak; Lugaritzekoak, mendebaldera edo Ibaeta aldera ematen zutenak. Hala ere, Matxainek ia bere idazki guztietan, eta izenaren azpian, beti jarri izan zuen “Aiete” leku-izena. Dena den, behin bere bertsoak izenik gabe idatzi zituen kasu bakarrean, Matxainek lekuko izen zaharra hartu zuen goitizentzat: *Galtzarakoa*, hau da, Donostiako leku hura XX. mendera arte ezagutzen zen izena.

Antonio Zavala harritzen da ikustean “erदारaren mugan jaioa eta bizia izanik” zein ederra zen Matxainen euskara. Halako zerbait esan daiteke beste bi aietearrei buruz: Segundo Kalonje, Oriamendi jaioa eta Iyolan bizia, eta Sebastian Salaberria, oiartzuarra izan arren, nerabetasunetik aurrera

4. Bera hil zen urtean, 1936an, Altza oraindik herri independentea zen.

Aieten bizia. Horkoxeak, bada, XX. mende bukaerako beste hiru bertsolari, donostiarrak eta aietarrak. Donostiako auzo gutxik izango dute halako uzta.

Matxainek, Kalonjek eta Salaberriak beste gauza bat dute komunean: ez aritzea bat-bateko bertsolaritzan, ez behintzat plazaz plaza. Hirurek nahiago izan zuten haien bertsoak idaztea. Bertso-jartzaileak izan ziren⁵ eta hirurek jaso zuten Basarriren babesa haren egunkarietako bertso-lekuan. Hirurek ere Antonio Zavalaren gerizpean idatzi zituzten haien liburuak: Auspoa sailean, hain zuzen ere⁶.

Hiru bertsolari aietear hauek garaikideak ziren. Kalonje 1910ean jaio zen, Salaberria 1915ean, eta Matxain, gazteena, 1916an. Hirurak Gerra Zibilak markatu zituen. Kalonje eta Salaberria alderdi nazionalean aritu ziren, hala mobilizatuak izan zirelako, eta Matxain boluntario joandako miliziano ezkertiarra izan zen. Noski, gerora gehien sufritu zuena Matxain izan zen: kartzelak eta langile-batailoien itzal beltza jaso zuen gerraondo luze batean.

Hirurak baserri giroan hazi ziren. Seguru asko, giro haren eragin txikiena duena Matxain da, baina gogoratu behar dugu XX. mendearen 70. hamarkada arte Aiete, Donostiako erdigunetik oso gertu egon arren, auzo baserritarra zela. Soroa eta ukuiluaren kutsu hori desberdina izan zen hirurantz. Kalonje baserritar profesionala izan zen: Oriamendi baserri-sagardotegian jaio eta kilometro bira dagoen Iyola baserrira ezkondu eta bertako etxeko nagusia izan zen. Salaberria umezurtz geratu zen eta morroi ibilitakoa izan zen; gerran zauritua, Udaleko langilea izan zen, baina Oriamendiko ur-deposituaren zaintza-lana aukeratu zuen, eta hantxe bizi izan zen erretiroa hartu arte. Matxain kale-etxean jaio eta bizi izan zen, Donostiako industria-enpresa batetzat lan egin zuen eta baratzea izan zuen; hala ere, baserri eta sagardotegi giroan bizi izan zen.

Sagardotegien bizitza eta kultura da, hain zuzen ere, beste ezaugarri komun bat. Kalonje orduan sagardotegia zen Oriamendi baserrian jaio zen; Salaberria 15 bat urte zituenetik gerrara joan arte Azken Portuko sagardotegian bizi izan zen morroi; Matxainen aitak taberna izan zuen garai batean eta Munto sagardotegiaren ondoan bizi izan zen bere bizitza guztian. Aieten

5. Kalonjeren familiak, nolana ere, ematen du bazuela bat-batekotasunarekiko nolabaiteko dohaina. Bai haren aita Joxe Martin, osaba Lino batez ere, eta baita Andres eta Joxe Leon anaiak ere bertsolari onak izan omen ziren, nahiz eta obrarik ez utzi.

6. KALONJE, Segundo: *Loreak udan intza bezela*, Auspoa liburutegia, Sendoa, Oiartzun, 1998.

SALABERRIA, Sebastian: *Nere soroko emaitzak*, Auspoa liburutegia, Tolosa, 1984.

SALABERRIA, Sebastian: *Neronek tirako nizkin*, 2. Argitaraldia, Auspoa liburutegia, Sendoa, Oiartzun, 1994.

SALABERRIA, Sebastian: *Sagardotegiak*, Auspoa liburutegia, Sendoa, Oiartzun, 1997.

ez zegoen ez plazarik ezta frontoirik ere, Aieten sagardotegiak zeuden. Salaberriaren liburu batek izenburu hauxe du: *Sagardotegiak*. Jakina, sagardotegiak ez ziren gaur egunekoak bezalakoak; haietan ez zen gaur bezala jaten. Askotan, etxetik eramandako zerbaitekin, edan eta jokatu egiten zen han. Sagardotegi inguruan toka-lekuak edo bolatokiak egon ohi ziren, eta, bide batez, baxoerdiak hustuz, jokatu egiten zen, eta baita bertsoak kantatu ere. Horixe da bertsolari haien eta gure Manuel Matxainen “humus”a.

Hala dio Basarrik: “Amabost urte zituan garaian zortzi sagardotegi ziran Aieteko baillaran. Zortziretan zan toka-jokoa. Errondak jokatzen ziran etenik gabe”⁷. Txabardegi, Santa Teresa, Munto, Azken Portu, Oriamendi eta abar ziren han inguruko sagardotegiak.

Hirurek ere badute beste ezaugarri komun bat. Adinagatik, Baserriren eraginagatik edo Zavala eta Auspoaren ardatz linguistikoagatik, hirurek idatzi zuten gipuzkoar dialektoan edo grafian. Hori ere bertsolari gazteengandik alden du zituen beste barrera bat izan zen.

1. Manuel Matxain Ezpeleta (1916-1999)

Pedro Manuel Matxain Ezpeleta Txabola edo Txaola izeneko etxean, Aieten, jaio zen 1916ko urriaren 13an, hau da, Lehen Mundu Gerra puri-puritan zegoenean. Honela dio berak:

*Gizaldi onen amaseiean,
urrillaren amairuan,
gerra gogor bat omen zebillen
ni jaio nintzan orduan.*

Txabola Aiete jauregiaren parean zegoen hiru etxebizitzako etxea zen. Ez zen, inolaz ere, izenak pentsarazi zezakeena. Oso ondoan beste etxe eta baserriak zituen: Txabola Berri, Gurugú, Otxanda, Guarnizo, Olabene, Munto, Alkiza, eliza...; etxe multzo hark osatu zuen Aiete auzoaren lehen gune aurrehiritarra.

Aita, Joxe Matxain Urdanpileta, Usurbilen jaio zen 1876an⁸. Foruak dagoeneko ezabatuak zeuden eta soldaduzka egitea tokatu zitzaion: Kubako gerrate gogorra egin zuen. Joxek taberna izan zuen Txabola etxearen azpian. Han maizter zen, eta, nonbait, bere kasa, eta Joxe “Bizar”⁹ nagusiari ezer

7. BASARRI, Ignazio Eizmendi: “Gaur, irakurle maiteok...” in Goiz-Argi, 1975-06-05.

8. Haren gurasoak Pedro Matxain Gorriti eta Joaquina Urdanpileta Mendiola izan ziren.

9. Joxe “Bizar” hori bilbotarra zen eta urtero etortzen omen zen Txabolako bigarren solairuko bere etxera uda pasatzera. Auzoan inork ez dio abizenik jarri, eta horrela geratu da: Joxe “Bizar”; bizarrik gabeko auzoan gauza ezohikoa zelako. Jabetzak zituena, Guarnizo baserria ere berea omen zen.

esan gabe, bere lagun Migel Joxe Peñagarikanori etxea eman zion Txabolan. Nagusia ohartu zenean haren baimenik gabe egin zela, etxetik bota zuen. Hori 1920 inguruan gertatu zen, eta Matxain familia Txabola Berrira, ondora, joan zen bizitzera.

Joxe Matxainek Easo kaleko arandegi batean lan egin omen zuen. Plazagizona zen eta seguru asko Manuelek bere aitarendandik jaso zuen dohain hori. Sona handiko irrintzilaria izan omen zen, eta jai askotatik deitzen omen zioten haren irrintzi sendoa entzuteko. Bestela ere, galtzadatik pasatzen zen edozein agurtzen omen zuen bere irrintzi indartsuarekin. Umore onekoa, bere kasa jartzen omen zuen ardo-kupel bat Aietetik pasatzen zen lasterketa ikustera zetorren jendea gonbidatzeko. Semeak izango zituen hanketako arazoak izan zituen, eta zahartzaroan hanka moztu omen zioten.



Manuel Matxain Ezpeleta (1916-1999).

Ama oso bestelakoa zen. Eustaquia Ezpeleta Oñatikoa zen. Seguru asko, zerbitzatera etorri zen Donostiara eta ezkondu zen Joxerekin. Joxe sagardozale eta kuadrillazalea bazen, oso bestelakoa omen zen Eustaquia: oso elizkoia, meza eta arrosariozalea, etxe barruan egotekoa. Agian, Manuelek zuen kutsu mistikoa harengandik etorriko zitzaion. Etxeko erlijio-tasuna dela eta, lehenengo bertso sailean (Arantzazuko Amari jarriak, hain zuen ere; eta hau ez da kasualitatea izango) hauxe dio:

*Txikitatikan artua naiz ni
fede santuko itzian,
nere guraso maitagarriyak
kristau zintzoak baizian.
Otoitz beroak egiten nitun
lanerakoan goizian,
andik irtenda errosaiua
senide danak etxian,
iñor ez dago ondo izaterik
oitura oiek galtzian.*

Eta geroago ere askotan aipatzen etxeko binomioa: erlijioa eta euskara:

*Txikitandikan azia naiz ni
otoitz goxoak entzuten,
aita ta amak euskera garbiz
beti egin zituzten.
Era ortako guraso asko
eztira orain ikusten,
merezi aña eztakit nola
nik goratuko nituzken.*

Bertsozalea zen ama, gehienbat Xenpelarren bertsoak maite omen zituen, eta hura barneratu zen Manuelen gogoan. Honela dio:

*Ene, Xenpelar, zure bertsoak
ederki dauzkat jasoak,
amaika aldiz kantatzen ditu
nere amatxo gaxoak.*

Bikoteak bost seme-alaba izan zituen; Antoni, Manuel eta Migel bizi, eta, beste bi, Santi eta Iñaxi, ume zirela hil ziren: lehena, biriketakoarekin; bigarrena, elgorriarekin.

Dena dela, familia 1920 aldean Txabola Berrin jarri zen bizitzen. Txabola Berri hori Txabolatik oso gertu zegoen, eta antzeko etxea zen: hiru solairu eta hainbat etxebizitzaz osatua. Geroago, Matxainene bezala ezagutua izango da, baina aurretik beste izen kurioso bat eduki omen zuen: “Venta Peligro”. Konturatu behar dugu ondotik galtzada zaharra eta, gero, errepi-dea pasatzen zela eta dela. Bide hori izan zen Donostia Hernanirekin eta

Gipuzkoako mendebaldearekin lotzen zuen bide nagusia XIX. mende erdialdera arte. Hala, Oriamendi inguruan Oriamendi Benta edo Benta Haundi dagoen bezala, Txabola Berrin ere ostatua egon omen zen, ondoko bidetik pasatzen baitziren bidaiariak, gurdiak eta diligentziak.

Manuel Matxainen ikasketak oso urriak izan ziren. Berak esaten zenez, Zezilio Agirre, apaiz andoaindarra, eta Aieteko eliza berriko lehenengo apaiza izan zen 10 urte izan arte eskola erakutsi ziona. Agirrerren apaizgoaren 50. urteurrena ospatu zenean, Matxaini tokatu zitzaion bertsoen bidez eskertzea, eta haxe dio seiko sortako hirugarrenean:

*Orduan aurtxo giñanak asko
orain gera gurasuak,
zuk emandako kontseju onak
ondo dauzkagu jasuak.
Ta gaur omena eskeintzen dizu
zuri Aiete osuak,
zure eskutik eman bait-giñun
lendabiziko pausuak¹⁰.*

Bere bertsoetan behin eta berriro aipatzen ditu izandako ikasketa eskasak, eskola falta. Matxain autodidakta izan zen, haren erreferentea zen Basarri bezala.

*Hasierako bertso batean honela dio:
Eskola gutxi izan det beti,
oso motela mingaña,
auxe bai dala gaztetan nuan
alperkerian ordaña!*

Ez da egia. Ez zen sekula mingain motelekoa izan. Oso solaskide ona eta umoretsua izan omen zen. Mahai ondoan tokatzea nahi izaten duzun horietakoa. Manuel Lasartek zioen “gustora asko” egoten zela haren ondoan mahaian, “gizon gozoa ta izlari atsegiña” zelako.

Ez zuen alferkeriagatik eskola utzi, lana egiteagatik baizik. Garaiko kontuak ziren. Haren anaia Migel ere urte horiexekin joan omen zen morroi, eta auzoko adin berberekoek ere, ia denek, hamabi urterako uzten zituzten ikasketak. Hala eta guztiz ere, haren bertsoek erakusten dute garai hartarako irakurle sutsua eta kultura zabalekoa zela.

Diogun bezala, Manuel hamar urterekin eskola utzi eta hasi zen lanean Donostiako harategi batean. Hamalau urte zituela sartu zen José Luis Caballerok Triunfo kalean baldosak egiten zituen enpresan. Han eraman zuen lan-bizitza guztia, bertan 64 urterekin erretiroa hartu arte.

10. MATXAIN, Manuel: *Uste gabeen*, 113. or.

Jubilatu zenean, sei bertso jarri zizkion bere lan-enkargatua izan Joxe Errastiri. Lehenengoaren zati bat eta bigarrena hauxe diote:

*Iñoz pentsatzen egoten naiz ni
nola izan ditekean:
zu enkargatu, ni berriz morroi,
ogei ta amabi urtean,
aurpegi txar bat ikusi gabe
beññere gure artean*

*Zu jartzen ziñan zure tokian,
ni berriz neronenean
ta gauzak beti egiten giñun
al zan modu onenean;
etzan buillaka ari bearrik,
dana ondo esanean;
nagusi eta morroi artean
anaitasuna danean,
jaten da edaten bezin gustora
aritzen da bat lanean.*

Bertsoek eta haren lan-egonkortasunak dioten bezala, gustura aritu zen lantoki hartan. Berak zioenez, bere lanak, baldosa mugitzeak eta mugiarazteak trebatu eta indartu zituen bere besoak. Baita bere zangoak ere Aldapetako aldapan gora eta behera, jaitsi eta igo beharrak. Nonbait, aldapa korrika igotzen omen zuen sasoiari zegoela. Behin, lasterketa bati segi omen zion eta konturatu omen zen lasterka egiteko ere gaitasuna bazuela.

Antonio Zavalak dio haren bertsoak “bertso peripatetikoak” direla, haren joan-etorrietan pentsatuak, hausnartuak eta neurtuak direlako. Matxainek ere honela dio *Zeruko Argiak* 1968an egindako elkarrizketa batean:

“— Noiz egiten dituzu bertsoak?”

Aldapa gora eta aldapa bera, lanetik, Donostiko kaletik etxerakoan. Oñez joateko oitura det eta orduntxe gogoratzen zaizkit bertsoak. Buruan gordetzen ditut eta noizbait, bear denean, idatzi egiten ditut”¹¹.


Aldi berean, bestelako ikasketa bat izan zuen Muntoko sagardotegiaren toka-lekuan. Munto haren etxetik berrehun metrora zegoen baserri eta sagardotegia zen. Idazten ari naizen honetan, urte asko erdi botata egon ondoren, sagardotegi horren pareta eta morroiloa babestuak izan dira eta haren inguruan Munto plaza eraiki da. “Muntoko unibertsitatea” Aieteko auzoarentzat eta Donostiarentzat elkargune bat izan da edateko, jateko, jokatzeko eta hitz egiteko. Leku horretan graduatu eta doktoratu zen Manuel Matxain.

11. *Zeruko Argia*, 1968-04-14.

Hamahiru urte zituela hasi zen tokan serio jokatzeko. Harrezkero, tokaren erregea izan zen mende erdi batean. Toka zaletasuna ere, haren bilobak dienez, aitona zuen Pedro Matxainengatik zetorkion, XIX. mendeko tokalari ezaguna izan omen baitzen.

“Pultsu ona, bista argia ta beso zuzena aretxek zeuzkala”, dio Manuel Lasartek. *Deiak* 1991n Matxaini egindako elkarrizketan hauxe dio bere markarik onenari buruz:

“Ez dakit... ez ditut markak aipatu nahi... tokan... behar bada 60 ointara (16,8 metro) 6 zentimetroko zabala eta 30 zentimetroko alturako burdinarekin Lizaso bertsolariaren etxean egin nuena, 81 aldiz jo nuen, 20 tiradatan (tirada bakoitza sei fitxa). Inõr ez da arrimatu ere egin marka horretara. Gehiago ere baditut, baina, tira, nahiago dut ez aipatzea¹²”.



Manuel Matxain bere lanean.

12. *Deia*, 1991-03-17.

Oraindik 70 urtetik gora zituenean ere hortxe aritzen zen. Sei hamarkadetan Euskal Herriko tokako erregea izan zen eta sariak ehunka etorri ziren. Bere bertso “mistiko” batean aipatzen du bere toka-zaletasun hori:

*“Gehien maite nuen
bola eta toka,
errero baten gisa
beti burni-joka.
Naiz Jaunak eman neri
lareunen bat kopa,
aitagure bat iñoiz
ez nion nik opa”.*

Horixe zioen 1972an, eta artean bere karrera ez zegoen amaitzear.

Baina Matxainen kiroltasuna ez zen tokara bakarrik mugatu. 16 urterekin hasi zen lasterka ere. Haren lehenengo lasterketan, Gipuzkoako gazetxoen txapelketa irabazi zuen Tolosan. Geroago etorri ziren beste sari batzuk. Iraupen erdiko lasterkaria izan zen, 1.500 metro ingurukoa. Urte horietan Uliako Gimnastikan sartu zen. Honela zioen bertso batean:

*Amasei urte nituanean
sartu nintzan Gimnastikan,
esker on asko jasoak ditut
etengabe geroztikan¹³.*

Matxainen bertso gintzak lasterkariak oso hurbileko izango ditu. Lasarteko Krosa, Jose Manuel Maiz, Abebe Bikila, Mamo Wolde... haren bertsoen gai bihurtuko dira.

Errepublikako urte haietan pilotan ere hasi omen zen, eta hura ere txukun giten omen zuen. Kirol horretan ere sari batzuk lortu omen zituen.

Gazte-mundu hura, toka, pilota, krosa..., dena pikutara joan zen Gerra Zibilarekin. Seguru asko, gerra da Manuel markatu zuen gertaerarik garrantzikoena. Haren bizitza erabat baldintzatu zuen eta hori haren bertso gintzan nabari-nabaria da.

Matxain, nonbait, anaia Miguel bezala, ideia ezkertiarrekoa izan zen eta Gerra Zibila hasi zenenean boluntario joan zen, miliziano, UGTko 5. batailoian. Bizkaiko kanpaina egin ondoren, ez zen errenditu, gudari nazionalistak bezala Santoñan, baizik eta Santanderrerraino jarraitu zuen, eta han preso hartu zuten hiria nazionalen eskura pasa zenean, Bilbo erori eta bi hilabete beranduago. “Errepublikan aldekoa naiz” esan zuen 1976ko bertso batean. Haren bilobak dionez, frentean granadak botatzen jarri omen zuten. Nolanahi ere, ez omen zitzaion gustatzen kontatzea garai hartako pasadizoak. Ulertzekoa da.

13. Horrela dio *El Diario Vascon* idatzitako sei bertsoetako sail bateko lehenengo bertsoan. Gimnastikaren proba handienean, Errege egunean, bazkarira gonbidatuak izaten omen ziren “gera aurreko laisterkariok”.

Gerrak erabateko gizon bakezalea bihurtu zuen eta haren bertso gintza-
ren ardatz nagusietako bat izan zen.

Bertsoetan utzi du partaidetzaren lekukotasuna:

*Gerraren otsak mugitu zitun
gure mendi ta kaleak,
nunbait etziran naikoak lendik
genituen naigabeak.
Gizonak nola daramazkien
barruan bere ideiak,
orra gudari biurtu lendik
giñanak pakezaleak.*

*Errepublikan alde joan giñan
boluntario gerrara,
egia esan, gu ez giñuzen
iñork beartu ortara;
gauza triste ta negargarririk
mundu onetan bat bada,
probatu duan batek au dio:
anai arteko gerra da”¹⁴.*

Oraindik zaharragoa den beste bertso batean, 1971n, hain zuzen ere,
honela dio:

*Ogei bat urte nituan ekiñ
ziotenean gerrari,
kinta garaian nenguan eta
jarraitu bear berari
Errepublikan alde ibilli
nintzan Bizkaian gudari,
zer irabazi gutxi zegoan
ta zer galgu ugari.*

*Iru urtean burrukan jardun
ta azkenik errenditu,
gerra onenak ere ondoren
tristeak izaten ditu.
Millaka anai bertan il ziran,
beste asko elbarritu,
gizon oietaz orain artean
ez da iñor errukitu¹⁵.*

14. *La Voz de España*, 1972an jarritakoak dira, oraindik frankismoa bukatzeko hiru urte falta zirela.

15. Bertso hauek *Zeruko Argian* 1971n agertu ziren “Eskudero prokuradoreari” izenpean. Hamar bertso dira eta horien bitartez Gipuzkoako Gorteetako prokuradorea zen Manuel Eskudero Ruedari (1919-1998) babesa eskatzen zion Errepublikako soldadu zaurituen alde.

Preso hartuta, El Dueso (Santoña) presondegian egon zen eta bi urte pasa zituen han eta beste kartzela batzuetan. Leku haietako oroitzapenak mingotsak dira. Garai hartako gosea eta hotza barruraino sartu zitzaizkion. Bere kartzela-topografia oso aberatsa da: Miranda de Ebro, León, San Emiliano, Bartzelona... 1939ko urrian etxera bidalia izan zen, baina handik hamar hilabetera berriz ere Langile Batailoi batera deitu zioten. Han hiru urte pasa zituen, gehienbat Galizia aldean, eta etxera etorri aurretik Pontevedrako Artilleriako gorputzean beste urte-erdi bat egin omen zuen. Hogeita zazpi urterekin etxera bueltatu zen, 1943 urte bukaeran.

Matxainek zioen balek beti errespetatu izan zutela bere gorputza. Oso bakezale kutsukoak diren 1978ko bi bertso hauek gogoan dute garai beltz hura eta beste zenbait gorabehera ere ematen dizkigute:

*Ez pentsa inork igo naizenik
frankotarren karruan,
bere aurka nik ia bizia
utzi nuen Ondarruan.*

*Naiz ta bizkarra maiz berotua
preso nengoen orduan,
ta metrallaren arrasto batzuk
eduki nere larruan,
gorrotoaren izpirik etzan
gelditu nere barruan.*

*Nik gorrotoa bakarrik diot
anai arteko gerrari,
negarra pranko ekarri zion
berak Euskalerruari.*

*Lagundu nairik gure izkuntza
ta jaio nintzan lurrari,
faszisten aurka boluntario
ibili nintzan gudari,
egun bat onik ez nuan pasa,
negargarriak ugari.*

Bitartean, gerra ondoko urteak ere txarrak izan ziren Matxain familia-
rentzat. Miguel anaia atxilotu egin zuten. Nonbait, Partidu Komunistako
kidea zen eta presoan aldeko laguntza-sare batean sartuta zegoen. 1942an
etxetik alde egin behar izan zuen, etxera polizia atxilotzera etorri zenean.
Polizien burura jaka bota ondoren, balkoitik salto egin eta tiro artean Bera
Berako malkarretik barrena ihes egin omen zuen. Lehenengo Ibaeta aldean,
Lukenkategi baserriko meta baten barruan gordeta egon, gero Bizkaian
morroi ibili, eta, azkenean, partiduak atera omen zuen Frantzia aldera.
Berarekin batera alde egin omen zuten Konporta baserriko Gaspar Anzak eta
besteren batek ere. Miguel ez zen gehiago Aietera etorri; Hendaiaraino ger-
tratzen omen zen eta hara joaten zen familia bera ikusteko. 1972an, Migel

hil baino urtebete lehenago, Manuel *Zeruko Argiaz* baliatu zen “*Frantzian dagon anaiarentzat / jartzeko bertso berriak*”, eta hala zioen: “*Ogeitamar bat urte badira / zu etxetikan joanik*”.

Matxain familia oso kastigatuta geratu zen gerraostean. Miguel atzerrian, Manuel preso... Joxe aita zaharra ere atxilotu omen zuten eta harekin batera bere suhia zen Nikolas Urkola. Antxoni Matxain (1911-1988), Manuelen arreba, jostuna zen eta 1940an ezkondu zen Egiako mutil batekin, Nikolas Urkolarekin, hain zuzen ere. Hiru alaba izan zituzten eta Antxonik eta Nikolasek, halabeharrez, atera zuten aurrera Matxain familia. Antxoni hil zenean, Manuelek gogoan izan zituen garai txar haiek eta sei bertsoetan, zortziko nagusian, “Eskerrik asko” izenpean gogoratzen zen Antxoniz:

*Nere arreba biotzekoa
joan zait lengo egunean,
ainbat urtean bizitakoak
alkarren aldamenean¹⁶.
Era ontako ezbeharren bat
gugana datorrenean,
Jaunaren naia artu bear guk
modurik jatorrenean.
(...)
Gerra denboran bi anai preso
ta gurasoak zartuta,
lanikan pranko izandu zuan
danak berekin artuta.
Santa batena izan zan beti
bere munduko konduta,
seguru gaude orain dagola
betiko zeruratuta¹⁷.*

Gerraondoko nekaldiak bukatu zirenean, Matxain tokara bueltatu zen. Urte horietan bola-txapelketetan ere hasi zen, eta nabarmendu egin zen horretan ere. Igandero bi edo hiru sarirekin bueltatzen zen etxera. Urrezko garaia izan zen hura.

1950ean ezkondu egin zen Maria Teresa Etxarri Urrestarazurekin. Emaztea hamar urte gazteagoa zen eta Antxoni Matxainek etxean zuen jostun-eskolako ikaslea izan zen. Bertakoa zen, Aieteko Erramunene baserrikoa. Haren ama, Antoni Urrestarazu, Casa Nicolasaren jabearen, hau da, Maria Urrestarazuren ahizpa zen. Urte horietan Erramunene baserria itxurazko jatetxea bihurtu zen, nolabait Casa Nicolasaren menpekoa. Bezero dotoreak zituen, eta,

16. Manuel Matxainen familia Matxaineneko beheko solairuan bizi zen, eta Antonirena, berriz, gainean, lehen solairuan.

17. *El Diario Vasco*, 1988-01-07.



Miguel, Antxoni eta Manuel Matxain.

sona handia zuen Gipuzkoako herrietako jaietan, sos batzuk biltzen zituen joko-erakusketa horietatik, baina ez zen jokozalea izan. Horrez aparte, ordea, hor zebilkion, nonbait, lumaren arra.

Bere bertsoetan dioenez, 1963an lagunarteko apustu bat egin zuen (txuleta batzuk jokatuz, nonbait), bertso-saila osatu eta Euskaltzaindira aurkeztu baietz. Bigarren saria eman zioten. Honelaxe dio berak *Uste gabe*an liburuarren hitzaurrean, 1969an:

“Orain sei bat urte, Donostiako ostatu batean, iñulabarreko amarrak aldean, juntatu giñan iru lagun: bi erdi bertsolari; ta irugarrena, Aieteko base-rritar bat.

Nere lagun erdi bertsolaria asi zitzaidan puntuak jartzen. Egun artan ni bapo nengoan, txuleta ederra janda, ta –zergatik ukatu?– litroko botilla bat ardo edanda.

(...) jokoa egin genduen zeñek bertso obeak jarri. Euskaldunak, geienak beintzat, erdi bertsolari ta erdi jolari gera, ta gure seta guziak zerbait jokatuta

nonbait, Aieten zeuden sagardotegi itxurako tabernen oso bestelakoa. Hara enpresariak, politikariak eta halako jendea joaten omen zen jatera. Jatetxe horretan, etxekoa balitz bezala, jan eta lo egiten omen zuen Miguel Gallastegi pilotari handiak partida inportanteren bat zue-nean. Matxain-Etxarri familiak ere lagundu egiten zuen asteburuko otorduetan.

Manuelek eta Maria Teresak alaba bakarra izan zuten: Marian (Matxainene, 1952), erizain izandakoa eta jubi-latu berria.

Matxainen heldua-roak lasaia zirudien: lana bazuen, etxea ere bai; familia eratu zuen;

bukatzen dira. Guk iru txuleta jokatu ginduzen. Eta erabakitzeke juradu ona jarri ere: Euskal Akademia”.

Hortik abiatzen da bertsolari bidea. Manuelek 47 urte zituen. Ez zen batere gaztea eta badirudi ez zela biderik onena helburura iristeko, baina ez zen horrela gertatu. Hiru hamarkadako bide luze eta oparoari ekiten zion.

Zaletasuna, zionez, amarengandik zetorkion. Aspalditik ezagutzen zituen Fernando Amezketarraren bertsoak eta miresten zituen Xenpelarrenak. Aurreko pasadizo bertan aitortzen zuen dagoeneko erdi-bertsolaria zela. Sagardotegi-mundu batetik zetorren, lehen aipatu dugun bezala, eta idatzi ez arren, ez dago duda handirik han arituko zela bertsoak pentsatu eta botatzen bere kasa.

1974ko Mendaro Txirristakari¹⁸ eskainitako zortzi bertso sail batean, hauxe dio bederatzikoan:

*Orian berrogei urte,
nik daukat goguan
Aieteko baillaran
ikusitua nuan.
Bertso ederrik berak
an kantatu zuan,
aldamenetik ia
ezin giñan juan.
guziok morduan,
ia bi orduan,
Mendaro onduan
igaro genduan;
jendea nunbait bertan
pozik zeguan”.*

Bertso honetan dioena egia bada, zaletasuna gaztarotik zetorkion, hau da, gerra aurretik.

18. Mendaro Txirristaka, Eusebio Mugertza Azpiazu (1874-1955) gaur egun bertsolari ia ezezaguna da. Mendaron, Garagartza auzoan, Barberokoa errotan jaio zen. Morroi ibilitakoa, Kubako gerratean izan zen, eta, nonbait, Amerikako lur asko eta Europako beste hainbat nazio ezagutu zituen, baina gustukoena Kuba izan omen zuen. Bertsozaletasuna Pedro Mari Urruzuno apaizak bertsoan egindako sermoietatik zetorkion. Donostian, Loiolako erromerian, Bilintxek markatutako estampa klasikoan bezala, ezagutu zuen bere emaztea eta Donostian bizi izan zen. Matxainek bezala, nahiago zuen bertso-jartzailearen bidea eta adin berean hasi omen zen bertsoak idazten. Bertso asko gaztelaniaz edo mistoak egiten omen zituen.

ZAVALA, Antonio: *Mendaro Txirristaka bertsolaria*, Auspoa liburutegia, Tolosa (1974), 11-24.

1964tik aurrera hasi zen Manuelen bertso-jartzea *Zeruko Argian*, *Goiz-Argin*, edo Basarriren prentsa-atalen azpian, bai *La Voz de España*n edo baita *El Diario Vascon* ere.

Euskaltzaindiak bi alditan eman zion Xenpelar Saria eta beste batzuk ere lortu zituen. Antonio Zavalak 1969 arte jasotako bertsoekin *Uste gabean* liburua osatu zuen.

Urte horretan, Rafael Agirre Francoren bitartez, *Centro de Atracción y Turismo* (CAT) Udalaren erakundeak bultzatuta, Japoniara joan ziren, hain zuzen, hango telebista batera Soarte (Anjel Albizu) harri-jasotzailea, Usategieta (Teodoro Irazusta) harri-jasotzaile eta aizkolaria eta Matxain toka-jokalaria. Arrakasta handia izan omen zuten. Hegazkina probatu zuen lehen aldia, dirudienez, baina gehien txunditu zuena herrialde hura izan omen zen. Geroago, bertso askotan jarri zuen Japonia Euskal Herrirako eredutzat.

*La Voz de España*n eta *Zeruko Argian* agertu ziren 12 bertsoko sorta batean, honela deskribatzen zuen herri hura:

(...)
*Erri umilla eta ixilla,
 gogor egiten du lana,
 urte gutxian konpondu dute
 gerrak ondatu zuana.
 Gaur japonesak artua dute
 zentzuz bide bat berria,
 ikusi dute zer dan gezurra,
 ikusi zer dan egia.
 Ta len taberna zegoen lekuan
 eskola dago jarria,
 goi-mallaraño igotzearren
 maitatzen duten erria.*

Nonbait, haren bizimodua ere ukitu zuen han ikusitakoak:

*Musean egin, kontuak esan,
 ta lasai edan ardua;
 egia esan, beti izan det
 orretarako gogua.
 Baña uste det zorionean
 iritxi dala ordua,
 pixka-pixka bat kanbiatzeko
 neronen bizimodua.*

Gero ikusiko dugun bezala, 1960 eta 1970eko hamarkadak oso oparoak izan ziren eta orduan idatzi zituen bertso gehienak. Garai hartan, gainera, zenbait lagun asteartero hasi ziren biltzen tertulia giroan. Tertuliakide horien

artean zegoen Basarri. Hasieran, Bodegón Anastasion biltzen ziren, eta, geroago, El Vallés tabernan. Manuelen Basarrirekiko leialtasuna eta atxikimendua azken momentura artekoa izan zen.

Denboran aurrera, adinaren ajeak etorri zitzaizkion. Lehenengo barizeak, gero herniaren bat, azkenik garun-tumorea. Ebakuntzak garai hartako Erresidentzian (gaurko Donostia Ospitalean) egin zizkioten. Dozena-erdiren bat bertso-sail izango dira sendagile eta erizainei esker-erak emateko jarriak. Operatu zuten zirujauak gogoan izan zituen: Pérez Íñigo, Julian Bereziartua edo Mariano Arrazola. 1992an tumorea sortu zitzaion eta Madrilen egin behar izan zioten ebakuntza. Buruko gaixotasun eta ebakuntza horiek eragin zioten; okertu zioten aurpegia, murriztu zen haren bertsogintza.

Adinak gauza onak ere baditu. 1977an aitondu egin zen, alabak eta Anjel Alberdi suhiak bikiak izan zituztelako: Íñigo eta Jon Alberdi Matxain. Izugarritzko poza hartu zuen.

1980an jubilatu egin zen. Harrezkero, ugaritu egin ziren Erramuneneko sailetan zuen baratzearen zaintza-lanak. Matxainene utzi eta etxe berrira joan zen bizitzera, Aiete pasealekuko 41era.

Zahartzaroarekin omenaldiak eta sariak ere etorri zitzaizkion. Horietako asko toka- eta bola-jokoarekin zerikusia zutenak: Aieten, Herreran, Ibarra... Beste batzuk bertsogintzakoak: 1994ko Bertsolari Egunkoa, 1995eko Euskararen Udal Patronatuarena... Saririk handiena Odón Elorza alkateak 1992an jarritako Hiritar Merezimenduaren Domina izan zen.

Basarri lagun mina 1999ko azaroaren 4an hil zen tronbosiak edo perlesiak jota. Handik hilabetera eta gaitz bera zela medio, Manuel Matxain Ezpeleta zendu zen Aieten, 1999ko abenduaren 18an, 83 urterekin, hain zuzen ere.

Basarrik bertso borobil batekin deskribatu zituen Manuel Matxainen doaiak. Homeroren *Iliadaren* Akilezen aurkezpenarekin zerikusia dutela esan genezake:

*O, lagun Matxain, nik galdetzen det:
zuk barren ortan zer dezu?
Gure Jainkoak ainbat birtute
batera eman dizkitzu:
bertso-jartzaile txit egokia,
buruz argi ta jakintsu,
bolarietan lehenengo mailla,
tokan errege ta maixu,
txalogarriak iñon badago
txalogarria zera zu.*

2. Matxainen bertsogintza: produkzioa eta moldaketa

Matxainen bertsogintza ez da oso oparoa. 140 bat bertso-sailek osatzen dute haren lana. Antonio Zavalak denak kontatu zituen, eta zioenez 1.170 bertso dira guztira. Ez zen Matxain plaza-bertsolaria izan, bertso-jartzailea baizik. Horrek baldintzatu zituen haren bertso-neurriak eta -edukiak. Haren bertsokera azaltzeko, formaz bertsolari tradizionala zela esan genezake, baina edukiz oso gogoetazalea eta sakona.

Paradoxa hori bere bertsoen zabalkundean ere islatzen da. Bertso-paperak inprimatu eta saldu zituen azkenetakoa izan zen garai hartan, 1960ko hamarkadaren erdialdean, “Euskal Erriko azken bertso-paperak”, Zavalaren ustez. Halaber, egunkari eta aldizkarietan ere zabaldu zituen bere hitzak: bai *El Diario Vascon* eta bai *La Voz de España* egunkarian Basarriren *Nere Bordatxotik* eta *Mi atalaya montañera* ataletan, hurrenez hurren. *Eginen* ere argitaratu zituen behin. Gainerakoan, bertso asko garai hartako gipuzkoar bi aldizkaritan eman zituen argitara: *Zeruko Argian* eta *Goiz-Argin*, eta bateren bat Iruñeako *Príncipe de Vianan*.

Beste hedabide bat liburuarena izan zen. Auspoa Liburutegian Antonio Zavalak *Uste gabeen* delako liburua argitaratu zion 1969an. Matxain hil eta gero, tolosar jesuitak haren lan guztiak argitaratu zituen 2002an, lehengo izenburu huraxe zeukan liburu mardulean: *Uste gabeen*. Koldo Mitxelena Liburutegian, Antonio Zavala Fondoan, gordetzen dira Matxainek pasatako paperak, haren eskuizkribuak, besteak beste.

Beraz, hiru eratan aireratu zituen bere hitzak: bertso-paperean, lehen-goien antzera; eta artikuluetan eta liburuan, modernoan gisa.

Bertsogintzaren kronologiari dagokionez, aipatu dugu Matxainek oso berandu hasi zuela bere bertso-jartzaile ofizioa. 47 urte zituen, 1963an, lehenengo bertso-saila (Arantzazuko Ama Birjinari buruz) osatu zuenean. Hirurogeiko hamarkadan 38 bertso-sorta idatzi zituen, eta 1970eko hamarkada izan zen oparoena, 59 sorta. Handik aurrera urritzen joan zen bere sorkuntza: 25, 1980ko hamarkadan, eta, bakarrik hamarren bat (denek ez dute datarik), 1990ekoan.

Hortaz, haren oparotasuna hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan izan zen, ia bertso guztien hiru laurdenak. Geroago, osasun-arazoak tarteko, gehienbat burukoak, denboran bakandu egin zituzten haren bertso-sortak. Bestalde, adina ere kontuan hartu behar dugu. Eta, again, arrazoi psikologikoa ere egon daiteke tartean: Matxainen azkenengo bertsoak ilundu egiten dira terrorismoa eta biolentzia polikoagatik. Erabili zuen azken gai nagusia hauxe izan zen: bere samina Euskal Herriko bake faltagatik.

Hori horrela izanik ere, datatuta dagoen azken bertsoa Induraini zuzendutakoa da, hark 1994an Bordeleko belodromoan orduko munduko errekorra hautsi zuen garaikoa. Bertso alaiak izan ere.

Haren bizitzako azken bost urteek ez zuten emaitzarik eman.

Hasieran esan dudan bezala, ez naiz bertsolaritzan aditua; hala ere, neurtu eta sailkatu ditut haren bertsoak Juan Mari Lekuonaren¹⁹ laguntzaz. Ezaugarri hauek azpimarratuko nituzke:

1. Estrofa-mota oso desberdinetan idatzi zituen: zortziko nagusia, hamarreko nagusia, zortziko txikia, hamarreko txikia eta bederatzi puntukoa ohikoenen artean, baina baita zenbait ezezagunagoetan ere: hamarreko txiki hautsia, lauko handia, zortziko nagusi hautsia, hamaseiko handia edo kopla bikoitz hautsian ematen duen “Kezkati nago”, 1991ko bertso-sailean.
2. Estrofa-mota horietatik guztietatik gehien erabili zituenak molde nagusiko zortzikoa eta hamarrekoa izan ziren. Puntuen arteko 18 silabek (10 + 8), bi bertso-lerroek, seguru asko, aukera ematen zioten ideiak hobeto azaltzeko. Bat-batekoan monotonoagoa izan daitekeen molde nagusiak idazteko komenigarriagoa ematen du, eta horregatik aukeratuko zuen neurri hura.
3. Denborarekin, joera hori indartu egin zuen. Azken hogeitakoa bertso guztien molde nagusia edo handia da, eta, gehienbat, zortziko nagusia. Nonbait, eroso sentituko zuen bere burua molde horretan eta hari heldu zion.
4. Hain ohikoak ez diren estrofa oso gutxitan, kasu bakanetan, erabili zituen eta, gehienbat, hasierako hamarkadan. Probatzeko, agian. Bederatzi puntukoa ere, nahiz eta Xenpelarziale porrokatua izan, behin erabili zuen Mendaro Txirristakari eskainitakoetan: sei bertso soko sailean.
5. Molde nagusien aldeko apustu hori, lehen esan bezala, bertso idatziak direlako dela ulertu behar dugu. Matxainek mamira jo ohi zuen eta bertsoak noizean behin ateratzen zituenez, ez zegoen monotoniaren hainbesteko arriskurik; ez zuen bizitasunik behar.

Matxainen bertsoak formalki baliesteko ez dut iritzirik nire aipatutako eskasia dela eta. Hori dela eta, haren garaikideei utziko diet lan hori eta haiek esandakoak jasoko ditugu hemen. Basarrik dio “egokitasun aparta”

19. LEKUONA, Juan Mari: “Bertsolarien estrofa-motak Hegoaldeko usuarioan”, in Euskera, Euskaltzaindia, Bilbo (1982) 333-359.

zuela: “pulamentuz egindako bertsoak oi dira. Neurrira ondo errenditzen diranak; kantatu errezak, eta ikasi errezak bide batez”. Gaztelaniaz, berriz, gaineratu zuen: “*es un bertsolari literario de alta calidad*”. Eta hori esatea, eta gainera Basarrik esanda, asko da. Beste behin aipatu zuen Matxainen bertsoak “biribill, giartsuak” zirela. “Ondo neurtuak; exkaxirik eta sobrerik eztutenak”. “Oso ondo dabill neurrian eta baita puntutan ere” gaineratzen du, eta, inportanteena, “esan egiten dute zerbait”; “garaian garaiko gaiak” erabiltzen zituzten bertsoak zirela zioen Ignazio Eizmendi handiak.

Hainbeste estimatzen zuen Manuel Lasarte bertsolariak, Matxain hil zenean, hauxe zioen: “bertso-jartzaille ederra (...) nere gusturako. Berandu asi omen zan paperetan bertsoak idazten; baiña kendu zion zumua langintza orri ere”.

Antonio Zavalak, bertsoei buruz zerbait zekien norbait zenak, beste hau zioen, “bertsogintza erreza” zuela, “beartu gabea”; “nekerik gabeko lana” zela bere bertso-laborea. Beste ezaugarri bat azpimarratzen zuen: bazekiela bere mugak zein ziren “eta andik aurrera etzuan pausorik ematen. Ori ere buruz argia izatea da”.

3. Matxainen bertsogintzaren ideia-ildoak: tradizionalak vs. modernoak

Lantxoan zehar, behin baino gehiago aipatu dugu, alderdi batetik, bertsolari tradizionala zela, baina, bestetik, formaz baino askoz ere urrutiago zihoan bertsogintza sakona zuela.

Tradizional diren gai asko jorratzen ditu.

1. Esker ona ematekoak: makina bat badira bere liburuan zehar. Asko aipatu ditugu. Adibidez, sendagile eta erizainei, edo bazkari eta jaiei lotuak. Baita jubilatuen bidaiak ahalbidetzen zituztenei ere, aurrezki kutxei eta abar.
2. Familiakoei edo gertukoei zuzendutakoak: amari, anaiari, arrebari, bilobei...
3. Beste bertso batzuk, gutxi egia esan, irribarrea sortzekoak dira eta gai hutsala dute.
4. Beste batzuk auzokoei zuzendutakoak dira: Zezilio Agirre bere maisu eta gerra arteko Aieteko apaizari, bere ume besoetako Manuel Zubillagari eta haren gurasoei, Aieteko serorari... Ingurukoei ere eskaini zizkien, Añorgako bizilagunei eta elkarteei, gehienbat.
5. Bertsolariak ere bere langintzako lagunei askotan bertsoak eskaintzen dizkiete. Halaxe eskaini zizkien bera baino lehenagoko edo zaharragoak ziren Pernando Amezketarrari, Xenpelarri edo Mendaro

Txirristakari, adibidez. Eta baita bere garaikideak zirenei ere: Uztapide, Lazkao Txiki, Lasarte, Balendin Enbeita, Joxe Mari Arrieta, Bordari... eta, batez ere, behin baino gehiagotan bere mezenas zen Basarri.

6. Matxain kirol askotan aritutako gizona zen. Gainera, kirolak telebistan ikustea ere izugarri gustatzen omen zitzaion. Horregatik, bertso asko kirol-munduan nabarmendu zirentzako dira. Alor berezi bat dute estropadek, batik bat hasierako bertsoetan. Leku aparta izango dute lasterkariak, gehienbat Lasarteko Krosa, edo hango garaileak: Mamo Wolde edo Jose Manuel Maiz, esaterako; baita Abebe Bikila handia ere. Herri-kirolariak ere beren tartea izango dute: Polipaso, Errekalde, Soarte, Endañeta, Urtain, Jose Lopetegi, Ayestaran bolaria, Manterola arraunlaria... Pilotarien artean, bat maiteena: Barberito errioxarra. Txirindulariak ere gogoan izan zituen; adibidez, Valentín Urionaren ezbeharra eta heriotza Bartzelonan, edo Indurainen balentria gogoangarriak.

Futbolaren gehiegikeriak, diru kontuak zirela eta, ez zituen gogoko, eta Cruyff bezalako futbolariak islatzen zuten diru-kontratu izugarriak ez zituen gustuko. Nolanahi ere, añorgatarra eta garaikidea zen Silvestre Igoa (1920-1969) gogoratu zuen maitasunez bere heriotzan.

Kirol-erakundeak ere gogoan izan zituen: Pelota Elkartea, Añorgako Jolas-Etxea edo Uliako Gimnastika, gaztaroko bere kluba.

7. Beste aipamen batzuk nolabaiteko garaiko kontserbadurismoa erakusten digute: mutilen "melenak" edo ile luzeak, emakumeen galtzak janzteko joera, haien gona motzak, garai hartan hasi zen nolabaiteko askatasun sexuala... Badirudi, sozialki aurrerakoia zela, baina eguneroko ohituretan oso kontserbadorea. Denok daramatzagun gure nortasunaren alderdiak dira.

Dena den, gai tradizionalizat har genitzakeen aurreko horiek, era sakoan jorratuak daude, eduki handiarekin. Adibidez, nagusia eta morroiaren arteko elkarrizketa eta dialektika klasiko bat izan da bertsolaritzan, baina Matxainen bertsoetan ez zaigu agertzen betiko morroi alferra, baizik eta zapalduta dagoen pertsona edo langilea. Hortxe dugu bada: gai tradizionala, baina trataera bestelakoa.

Berriagoak diren ildoetan arreta jartzen badugu, harrigarria egin zait 1960 eta 1970eko hamarkadetako bertsolaritzan halako gaiak jorratzea:

1. Goraipamenetan, hortxe dugu kulturako zenbait pertsonaia: Isidro Fagoaga tenorea, Joxe Artetxe idazle azpeitiarra, Antxon Aiestaran Orfeoiaren zuzendaria... Sona handiko pertsonaiak ere gogoan ditu: aita Kolbe poloniar martiria, aita santua, Kennedytarrak... Horien

kasuan, bai John F. Kennedy presidenteari eta baita bere anaia Robert-i ere eskaintzen dizkio bertsoak. Garai hartan Euskal Herriaren mito izan zirenak: politikari gazteak eta katolikoak Amerikan, Argoitia neba-arreben “Kennedy gure laguna zen”en ildotik zihoan miresmena. Oso bitxiak dira Jacqueline Kennedyri buruzko bertsoak, bere garaian agertu ez zirenak eta eskuizkribuz gordetakoak. Matxainek kritikatu egiten du hark Onassis-ekin izandako *flirta* eta ezkontza. Maitasun platonikoa ote edo begirada kontserbadoretik aztertu behar al ditugu? Agian Freuden irakurketa mereziko lukete. Hori psikologoei uzten diet. Irakurle bakoitzak izango du bere erantzuna.

Che Guevarari buruzko bertsoak harritu egin zuten garai hartako bertsolaritza. Hura akabatu eta berehalakoak, 1967koak, dira. Xenpelar saria eman zioten eta ordura arteko bertsolaritzak jorratu gabeko gaia erakusten zuen. Sail luzeko 12 bertso dira, zortziko nagusian, eta bere miliziano zahar garaiko alderdi soziala agerrarazten dute. Honela diote 4.ak eta 5.ak:

*Kristo mundura etorri zala
badira bi milla urte,
beñere baño okerrago gaur
gaudela esango nuke.
Langille askok irabazia
beren izerdien truke,
beste batzuek pitxarkerian
geiena gastatzen dute.*

*Batzuek beti ler egiten da
beste batzuk guri-guri,
mundu eder au aberatsentzat
egiña dala dirudi.
Injustizien aurka norbaitek
ematen badu arpegi,
komunistaren izenarekin
bataiatzen dute ori.*

Kristautasuna komunismoarekin nahastea da haren bertsoen leloa. Beste bertso batean, 10.ean, ederki eta bitarteko gutxiren bidez deskribatu zuen Ernesto Guevararen biografia:

*Utzi zituan bere guraso,
diruak eta karrera,
beartsuaren eskubideak
atera nairik aurrera.
Lagun txar batek galdua baitu
Judasek Kriston antzera,
amabi tiro artu ta gero
or sartu dute lurpera”.*

2. Nazioarteko politikaren jarraipen zehatza ere islatzen da bere bertsoetan. Besteak beste, Biafrako gerra eta gosetea, petrolioaren krisia eta ondorioak, Salvador Allende eta Txileri zuzendutakoak Pinocheten kolpearen ondoren 1973an... Hamarreko nagusian jarritako hamar bertso haien bi adibide, hauexek:

*Txiletarraren naia izan da
oso denbora gutxiko,
nik banekien kapitalistak
etziotela utziko.
Auek ez dute langillearen
alde legerik jarriko,
baiña badakit ez dezutela
iñola ere etsiko,
bestela beintzat galdu zerate
zeon bizitza guztiko.*

(...)

*Allende jauna langillearen
alde jarri zan orduan,
berealaxe tratatu zuten
pizti txar baten moduan.
Jesus maitea, ark zure itzak
eduki zitun goguan:
zuzentasuna ta justizia
izan zitezen munduan,
bi zituanak bat emateko
zerorrek esan zenduan.*

India eta Pakistanen arteko istiluak eta zorigaitzak ere gogoan izan zituen, baita Pertsiako Shak Persepolis inguruan ospatutako handikeriak ere. Hitz profetikoak ditu zelebrazioak haiek zirela eta 1971n:

*Dalako Shak gaur ibiliarren
aundikeriaz puztua,
ez da faltako berari ere
nor artu kontu estua*

(...)

*Beingoagatik entzun zazu, Sha,
bertsolarien esana:
ez dago ondo errien bizkar
orrela gastatzen dana;
batzuentzako irabaziak,
beste batzuentzat lana,
ia denboraz gertatzen zaizun
Rusian gertatu zana.*

Geroko Iran eta Iraken arteko hamar urteko gerra luzea edo 1990.ean gertatuko diren Panamako inbasioak edo Ceaucescuren exekuzioak tartea izango dute haren bertsoetan ere.

3. Bertsoek alderdi kultua ere erakusten dute, irakurtzen zuen gizon batena. Bere biografian aipatu dugu Basarriren moduko auto-didakta izaera. Behin eta berriro aipatzen digu eskolaren beharra, Japonian ezagututakoa adibidetzat hartuta. Horrela bada, Matxainen bertsoetan Marxen erlijioaren ikuspegia eta bere iritzia aipatzen zaigu:

*Marx-ek esana erlijioa
errien opioa zala,
nik derizkiot gaur deportea
biurtzen ari gerala.*

Beste batean *streaking*-a dela eta (hiztegian begiratu behar izan dut eta, bilutsik lasterka egitea da), hamar bertsoetako sorta egin zuen zortziko nagusian.

Halako batean, Unamunok Bilboko 1901eko euskal jaietan hitzaldi batean esandakoa du aztergai:

*Unamunok bein au esan zuen
orain larogei bat urte:
«Euskera laster ilko da eta
lurpean sartu zazute».
Aren esanik ez tala bete
garbi ikusten dezute,
iru urteko aurtxoak ere
askok itzegiten dute.*

4. Matxainen bertsoetan ezerk txunditu banau, hori erlijioaren eta kristautasunaren aurrean izan zuen joera eta idazkera izan da. Erlijioa beti izan zen bertsoetaritza tradizionalaren adar bat. Baina horren tratamendua ahula zen: entzundakoa, doktrinakoa, apai-zen sermoietakoa... Hortik aurrera, gauza gutxi, badaezpada ere. Bertsolari guztiek zuten prestatuta Jaungoikoa, Ama Birjina edo tokatzen zen erromeriako santuaren pasarteren bat errima bihurtuta.

Ez dut esango Matxainen bertsoak filosofikoak direnik, baina erlijioarekiko beste ikuspegi bat dute. Haren sorkuntzaren barruan bertso erlijiosoek garrantzi handia dute eta asko dira, baina hasieratik adierazten duten sententzia berezia da: pertsonala, mistikoa, existentzialista. Ez dut uste Matxainek existentzialismo frantsesa edo Mounieren pertsonalismoa zuzenean ezagutuko zituenik, baina kontuan hartu behar dugu *Zeruko Argiaren* irakurle tinko bezala agertzen dela; hargatik, bide-berritzaile horiek, zeharka, ezagutuko zituen eta baita erabili ere bere bertsoetan.

Horrekin ez dut esan nahi iraultzaile erlijiosoak zenik. Inolaz ere. Matxainek behin eta berriro aipatzen ditu aita santuaren bidaiak eta defendatu egiten ditu Paulo VI.aren joera modernizatzaileak. Beti txalotu zituen, bai Kontziliotik sortutako erreformak eta baita apaiz gazteak haren inguruan egiten ari zirena ere. Eliza erreformatzaile baten alde egon zen beti.

Hala eta guztiz, nire ustean, interesgarriena da Jaungoikoarekiko hurreratze pertsonala. Amaren aldetik etorriko zitzaion alderdi hori, aitaren aldetik baino gehiago. Eta hurbilpen horretan damuaren kategoria agertzen zaigu. Arantzazuko Amari jarritako bertsoetatik, hau da, lehenengoetatik, agertzen da joera hori. Txikitan, etxean, kristautasunean hezita zegoen, baina gero aldame-nera utzi zuen bide hura:

*Denborarekin asi nintzan ni
bide on danak baztertzen,
grina gaiztoak ari baiziran
nere barruan indartzen.*

Hamar urte beranduago hauxe zioen damu hura azpimarratuz:

*Kristau aldetik, beraz,
izan naiz kaikoa,
kopak irabaztea
ez baita naikoa.
Damuturikan nago,
nere Jaungoikoa,
Zurekin izandua
esker txarrekoa.*

Beste alderdi batetik begiratuta, kristautasunaren legeak eta aginduak ikusi izan zituen bidetzat bakea eta berdintasun soziala lortzeko, eta askotan azpimarratu zuen lelo hori. Berak esandakoa ez zela komunismoa, baizik eta kristautasuna. Horren adibide bat:

*Kristo ber-berak orduko itzak
orain esan bazituan,
komunistatzat artuko zuten
gizon asko segituan.*

5. Politika aldetik ere oso interesgarriak dira bere iritziak. Bere bertsoak politikoak dira, hitz hori bere jatorrian ulertzen badugu, hau da, *polisaren* ardurari buruzkoak, eta ez alderdi, partidu edo “keria”-rekin buka daitekeen hainbat adjektibori atxikiak.

Matxain Gerra Zibilak markatutako gizona da, bere garaiko asko bezala. Gerrari, edozein gerrari, gorroto bortitza zion. Bere hasierako bertsoetatik plazaratzen du bakezaletasun hori, baina ez hitz eroso eta erraz bat bezala, barrutik sentitutakoa baizik.

*Pakeak aña balio dunik
ezta munduan ezere,
gerra dabillen tokian ezta
gauza onikan beñere.*

Gogoan izango ditu Xenpelarrek bake egarriz sortutako bertsoak. Matxainek ere bere garaira eramango ditu:

*Zazpi urtean pasatua naiz
kanpoan egun da gabak,
Jaunari esker ez ninduten ni
sekula ikutu balak.
Baña alare jarriko dizkat
al badet gerrari trabak,
gure moduan ez ibiltzeko
geronen seme ta alabak.*

Oraindik Konstituzioa eta Estatutua indarrean egon ez arren, Matxainen abotsa bakearen alde eta armen aurka altxatzen da. 1978ko ekainean hauxe zioen:

*Beti negarrez dagon erri au
aurki ikusteko alai,
esku artetik armak uzteko
ez al da oraintxe garai?
Guraso asko daude kezkatu
etxean semearen zai,
nik Etakoak anaiak ditut
baiña guardiak ere bai,
geiago odolik ixurtzerikan
gure lurtean ez det nai.*

Bakezaletasun hori indartu egingo da 1980 eta 1990eko hamarkadetan Euskal Herriak bizi zuen biolentzia politikoa eta ETaren terrorismoa zela eta. Bere azken bertsoak mingotsak dira, eta behin eta berriro gogorazten dute bakearen beharra. Eta presoek buruz hauxe zioen:

*Zazpi urtean ikasia naiz
nolakoa dan kartzela,
iruditzen zait orko berri nik
zedozer badakitela.
Probatua naiz beroa eta
baitere neguko jela,
bainã ez daukat gorrotorikan
neretzat zuten bezela.*

*Guk nai badegu preso daudenak
kartzelatikan atera,
gogorkeriak utzi bearrak
dauzkagu alde batera.
Gauza oiekin, nere ustetan,
egiten zaie galera,
bide ortatik ez direlako
iñoiz irtengo kalera.*

Bi atentatuk hunkitu zuten, batez ere: batetik, Alberto Muñagorri 1982an bonba bat zuen motxilaria ostikoa eman eta eztanda egin zuenean, mutikoa larriki zauritu zuena, eta, bestetik, Koro Villamudria, 3. BUPeko ikaslea eta polizia baten alaba, auto-bonba batek akabatu zuena 1991ko apirilaren 15ean.

Bakearen aldeko samin hori ETaren urte odoltsuenetan, 1979-1981 bitartean, areagotu egin zen:

*Gure lurtean gizonak iltzen
ari gera barra-barra,
arrazoiaren orde z nagusi
jarri nai dute indarra.
(...)
Lenago ere esan izan det
neronek amaika aldiz:
neretzat berdín da diktadura
jantzi zuriz edo gorriz,
nik bere mende gure lurtean
ez nuke egon nai berriz.*

Bukatzen ez zen biolentziak eta setakeriak indartu egin zuten bere erlijiozaletasuna eta behin eta berriro zeukan fede gartsuan babestu zen.

Mindu egin zuen beste gauza batek: euskara batua sortu zeneko zatiketak, “Seta gaiztoa” berak zioen bezala. Matxainek 60 urte bidean eta, ez da aldatuko. Bere lagunak, Basarri edo Zavala ere ez. Ez du batuaren kontrakorik, baina izan zen borroka hark min egin zion. 1973an hauxe dio:

*Atxe zaleak zeratenak ta
ta etzeratenak berdin,
al dan guzia idatzi baiña
iñori eman gabe min.
Nai dezutenak Zeruko Argian 'n,
besteak berriz Goiz Argin 'n,
an edo emen neri berdin zait
baiña pakean lan egin.*

(...)

*Zerbait idazten degunak gera
ia bi milla euskaldun,
atxekin edo atxerik gabe
danok bear degu lagun.
Askatasuna ta justizien
alde beti gogor jardun,
ia onela erri zar au guk
pixka bat moldatzen degun.*

Hasieratik aipatu ditugu bere ideiak: errepublikazalea eta sozialistazalea. Horrela aitortu zuen eta Franco bizirik zegoela aitortu ere. Hala ere, denborarekin, ematen du nazionalismorantz, edo behintzat subiranotasunerantz, joan zela, bere independentzia pertsonala mantenduz betiere.

Garbi, eta oso goiz, esanda utzi zituen bere oinarri politiko orokorrak: demokrazia, giza eskubideak, bakea eta Europarekiko zaletasuna. 1974an “Europa Batua ta gu”, hamarreko nagusian idatzitako zazpi bertsoetatik hiru aukeratuko ditugu:

*Politikako gure jokera
orixe dala merio,
nere ustetan gure erriai
ateak itxi zaizkio.
Demokrazian bizi gerala
guk esan arren serio,
aurrera ere elkarte orrek (EBk)
atea itxiko dio,
gure erriak lengo bidetik
baldin jarraitzen badio.
(...)*

*Ordua da ta artu dezagun
lenbailen bide zuzena,
adarretikan elduta ez da
menderatuko zezena;
danok dakigu soka zergatik
daukagun emen etena,
ez da geiegi nere ustetan
andik eskatzen dutena,
kaso egitea ez al litzake
danontzat gauzik onena?*

*Askatasuna langille danak
komeni bada biltzeko,
askatasuna erabakiak
bildurrik gabe artzeko;
askatasuna politikako
partidu batzuk sortzeko,
askatasuna agintariak
botoen bidez jartzeko,
auxe eskatzen digute guri
elkarte ortan sartzeko.*

Franco hil eta handik hilabetera Trantsizioak eta Monarkiak ekar zezakeen demokraziaren alde egin zuen. Hauxe zioen:

*Errepublikan aldeko naiz,
egiten det aitormena,
baiña jarri dan erregeakin
badaukat itxaropena.*

Baina handik hilabetera, Arias Navarroren gobernuaren “paralisia” zela eta, beste hauxe gaineratu zuen:

*Amnistia ta elekzioak
guk nai ginduzke iritxi,
baiña beldur naiz ez ote diran
ateak berriro itxi;
Arias jaunan itzaldi onek
ez gaitu gustora utzi,
itz eder pranko esan du baiña
probetxukorikan gutxi.*

6. Matxain aietearra zen, baina bera jaio zenean, 1916an, Aiete auzorik ere ez zen artean. Izenik gabeko bertso bakar batean “Galtzaratik” izenordea erabili zuen. Hala ere, Aiete egiten ari zen, eraikitzen pizkanaka, eta haren bertsoek bere izenaren azpian “Aiete” toponimoa aipatzen zuten beti.

Bertso asko ditu auzoari eta auzoko pertsonaiei edo gertakizunei buruz: omenaldiren bat, meza berri bat, jaiak... Eta auzoko edertasuna aipatzeaz kanpo, baditu beste bertso sakonagoak ere. 1970etik aurrera auzoa asko aldatu zen. Auzo nekazari eta aristokratiko izate-tik jendea bizitzeko eta lo egiteko auzo bihurtu zen. Baserriak desagertzen joan ziren eta baita Matxainek bere gaztaroan ezagututako sagardotegiak ere.

Hamarreko nagusian jositako bi bertsoetan islatzen du errealitate hori:

*Bertso batzutan esango det nik
 zer ziñan eta zer zeran:
 basarri txuri zoragarriak
 len bagiñuzen aukeran;
 orain geienak bota dituzte
 beste lekutako eran,
 denborarekin jakingo degu
 mesedetako ote dan.*

*Zuek ziñaten garai batean
 izkuntzaren gordeleku,
 bañan bildur naiz zuen azkena
 ez dabillen oso gertu;
 zuen lekuan egin dituzte
 jauregi eta konbentu,
 gauza oiekin nere biotza
 ez dago oso kontentu.*

Matxain kezkatzen duena zera da: baserriekin batera ez ote zen joango euskara ere Aieteko mendixketatik.

Aiete kanpotarrez betetzen joan zen aldi berean. Aietear gutxi batzuek beti defendatu izan dute haien “jatortasuna” kanpotarrekiko. Matxainen bertsogintzak ez du “pata negra”keriarik. Guerra Garrido *Cacereño* nobela (1970) idazten ari den bitartean, Matxainek datozen immigrante behartsuekin enpatizatzen du. Horren adibide beste bi bertso hauek hamarreko nagusian; lehena oso ona, nire iritziz, bere deskriptibotasunean:

*Gerri makurka itaia artu,
 egun guzia garitan,
 an itzal gutxi izaten da ta
 ari bear eguzkitan;
 burua zerbait altxa orduko
 maiorazkua erritan,
 auxe zan oien bizimodua
 len bizi ziran erritan.*

*Orain onera inguratzea
 gaur iñork ezin ukatu,
 kristau zintzoak bezala beintzat
 nai badegu guk jokatu;
 ta naiz Aiete gauza auekin
 erabat oso aldatu,
 datorrenari pozikan emen
 ematen zaio ostatu.*

Agian, gaurkotasunez betetako bertsoek jarraitzen dute izaten.

4. Bukaera

Manuel Matxain Ezpeleta belaunaldi baten lekukoa da, Gerra Zibilak markatu zuenekoak. Gerrak bakezale bihurtu zituen kide haiek. Gerora etorriko diren biolentziaz betetako urte beltzetan, esperientziaz osatutako aho-tsa altxatu zuten. Hiritartasunaren testigantza eman zuten.

Eskola eskasekoak ziren garai hartako asko eta asko; horregatik, auto-didakta izan ziren. Horrek badu bere meritua. Ahozko hizkuntza utzi gabe, haien bertso eta idazkiak idatzi egin zituzten, askok Auspoa Liburutegian, Antonio Zavalen magalean. Hortxe erakusten dute haien hurbiltasuna.

Baserri girotik edo haren ingurutik sortutakoak ziren, baina ez zioten uko egin hiriarri eta modernitateari. Haien lanak bi mutur horien artean, hau da, ikuspegi tradizionala eta modernoaren artean mugitu ziren. Matxainen kasuan, ikusi dugunez, gaurkotasunez betetako labore-sortak jorratu zituen.

Kristautasuna izan zen belaunaldi haren ardatz. Ez zen hori delako nazionalkatolizismotik, hau da, garai frankistetatik etorritakoa, baizik eta euskal gizarte katoliko tradizional batetik sortutakoa. Agian, zama handi samarra izan zen, baina gehienek ederki asko erakutsi zioten gizarteari bosgarren aginduak diona.

Euskararen segida bermatu zuten soka eratu zuten oso garai zailetan. Gehienak ez ziren moldatu euskara batuaren arauetara, baina, “h”kin edo “h”rik gabe, euskara zabaldu zuten bai bertsoetan, bai liburuetan eta baita irratian eta aldizkarietan ere.

Askotan, hurrengo belaunaldiek, adanismoz eta harrotasunez beteta, gaitzetsi, gutxitu eta iraindu egin zituzten lekuko haiek. Gaur egun, haiek idatzitakoa berrirakurtzeko garaia da.

Matxainek, 1993an, Basarrik 80 urte bete zituenean, hala zioen bertso batean:

*Jaio orduko zu asi ziñan
eten gabeen lanean,
gure izkuntza paregabea
kolokan egon zanean;
zuk Uztapide aztu eziña
arturik aldamenean,
bertso kantari ibili ziñan
gure probintzi danean.
«Habla en cristiano» agintariak
esaten zigutenean.*